

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Web-aplikazio baten bidez langabeziako datuen eta Nafarroan erregistratutako kontratuen kontsulta estatistikoa egin ahal izango da

*Tresnaren bidez azken 5 urteetako informazioa eskura daiteke, eta adina, prestakuntza, jarduera-sektoreak eta talde profesionalak bezalako aldagaiak gehi daitezke*

Jueves, 19 de junio de 2014

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) [aplikazio informatiko](#) bat jarri du erakundeen eta partikularren eskura [Enpleguaren atarian](#) (informazioaren autokontsulta egiteko), Nafarroako lan-merkatuari buruzko informazio estatistikoa lortu ahal izan dezaten.



Ordenagailua

Tresnak azken bost urteetan Nafarroan erregistratutako langabezari eta kontratuei buruzko datuak ematen ditu, eta adina, prestakuntza-maila, jarduera-sektoreak, talde profesionalak, herritartasuna eta abar bezalako aldagaiak hauta daitezke.

Kategoria guztiak konbina daitezke udalerrria, adin-tartea eta denboraldia bezalako beste batzuekin; hala, informazio eguneratua eskura daiteke, nahieran, kontsulta egiten duenaren premien arabera. Eskuratzen den informazioa Excel edo PDF formatuetan deskarga daiteke.

Aplikazioa Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak garatu du, eta kudeaketako partaidetza eta gardentasuna sustatzen ditu, Datuak Babesteari buruzko Legeak eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak ezarritako lege-esparruaren barruan. Azpimarratzekoa da, estatuan, Madrilgo Autonomia Erkidegoak bakarrik duela antzeko tresna bat.